AZKOITIKO GAZTANENEA ERAIKINEAN KOKATU DIREN HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAREN GELA DESPLAZATUEN ZAINTZA ETA DINAMIZAZIO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO PROZEDURA IREKIA BALIATUTA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea hau da: Gaztanenean kokatu diren Hizkuntza Eskola Ofizialaren gela desplazatuen zaintza eta dinamizazio zerbitzuak kontratatzea.

2.- KONTRATUAREN AURREKONTUA

Lizitazioko urteko gehieneko zenbatekoa 27.995,00 €-koa izango da (%10eko BEZa barne), indarrean dagoen udal-aurrekontuko 1.3100.227.333.30.02 kontu-sailaren kargura.

3.- KONTRATUAREN IRAUPENA

- Kontratuaren iraupena bi (2) urtekoa izango da. Hasiera 2019-2020 ikasturtearekin emango zaio.
- Zerbitzuaren jarraipena bermatu asmoz eta betiere eskumena duen organoak hala erabakiko balu, urtebeteko (1) bi (2) luzapen burutu ahalko lirateke.

4.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzuak ondorengo ezaugarri eta zereginak izango ditu:

- Jendaurreko ordutegia: Astelehenetik ostegunera 15:30etaik 20:30era.
- Egutegia: irailetik ekainera.
- Jendearen harrera: informazioa erraztea.
- Irakasle eta ikasleentzako materiala prestatzea: oharrak, kopiak...
- Mantenu-lanei dagokion kontu ematea eta behar den lekuan jakin araztea.
- Gelen zaintza eta material erosketa.
- Liburuak eta material pedagogikoaren artxiboa antolatzea liburutegian.
- Bazkide txartelen ardura eta kontrola ematea.
- Udalarekin harremana.

5.- GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

- Giza baliabideak

Esleipendunak egokiak diren langile teknikariak izango ditu, kontratu hau gauzatzeko kopuru nahikoan, eta gaiari buruzko ezagutza tekniko egokiak nahiz horren inguruko eskarmentua dituztenak.

Esleipendunak kontratua gauzatzeko jartzen dituen giza baliabideak esleipendunaren zuzendaritza- eta antolaketa-boterearen aginduetara egongo dira eremu osoan eta legez ezarritako ordena guztietan (ordainketak, ordutegiak, jarraipenak, etab.). Hortaz, esleipenduna izango da erantzule bakarra eta kasuari ezargarri zaizkion legezko xedapen guztiak betetzera behartuta egongo da, bereziki kontratazioaren arloan, gizarte-segurantzan, zerga-arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan; hala bada, langileek ez dute inoiz lotura juridikorik eta lan-loturarik izango Azkoitiko Udalarekin.

- Baliabide materialak

Azkoitiko Udalak lana egiteko beharrezkoak diren baliabide material guztiak jarriko ditu.

6.- HIZKUNTZA BALDINTZAK

<u>Hizkuntza gaitasuna</u>

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte. Horregatik, Azkoitiko Hizkuntza Eskola Ofizialaren gela desplazatuen zerbitzuko lanak egiteko kontratatuko den enpresako langileek euskara ahoz menperatzen dutela egiaztatu beharko dute.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,

2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Hizkuntza erabilera herritarrekin

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da. Modu berean, era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez. Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

Hizkuntza erabilera administrazioarekin

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, bilera, kontsulta...) administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira, hau da, euskaraz .

EGINBIDEA.- Baldintza-orri hau, 2020ko martxoaren 3ko Alkatetza Dekretuz onartu da.

IDAZKARIAK,